



MAITAGARRIA ETA DESIOA

Mariasun Landa

Maitagarría
eta
desioa



elka

FITXA TEKNIKOA

AUTOREA: Mariasun Landa

IZENBURUA: *Maitagarria eta desioa*

ILUSTRATZAILEA: Maite Gurrutxaga

ARGITALTOKIA, ARGITALETXEA, URTEA: Donostia,
Elkar, 2012

ORRIALDE KOPURUA: 81

ISBN: 9788490270196

ADIN TARTEA

10 urtetik aurrera

IRUZKINA

12 atalez eta 9 irudiz osatutako liburua. Liburuaren hasieran zertaz ariko den kontatzen du, eta bitxia da, ezohikoa bai bederen. Atal bakoitzean bada letra lodiz errepikatzen den esaldi bat: **“Maitagarri-segundo bat orduak izan daitezke guretzat, asteak txolarrearentzat, hilabeteak antxoarentzat eta urteak inurrientzat”**. Narrazioaren bukaeran oso argi ikusten da esaldiaren esanahia, orduan konturatzen baita maitagarria protagonistari denbora akitzen ari zaiola.

Ez da zehazten non eta noiz gertatzen den istorioa, eta narratzaile orojakile batek kontatzen du. Hona argumentua: Bai izeneko neska batek maitagarri bati lagundu zion eta, ordainetan, maitagarriak desio bat betetzeko aukera eman zion. Neskak biharamunean galdera bera egitera joateko eskatu zion, eta halaxe egin zuen maitagarriak. Maitagarria konturatu ez arren, denbora aurrera joango da eta neskak beti gauza bera eskatuko du, nahiz eta maitagarriak ez ulertu sarritan. Azkenean, konturatuko da neskak benetan nahi zuena desioak izateko gaitasunari eustea dela, alegia, ilusioa izatea.

Bai pertsonaia berezia da, sorgina ematen du baina bere bizitza arrunta da. Errealitatea eta fantasia nahasirik ditugu lan honetan: jasaten ari garen krisi latza eta bizi dugun errealitate gogorra dugu batetik eta maitagarri bat bestetik. Nahasketa berezi samarra baina emaitza interesgarria



IKASLEEKIN LANDU DAITEZKEEN GAI PEDAGOGIKOAK

A/ IRAKURKETA BITARTEAN

- Ikasgelan, egunero, ahoz gora atal bat irakurtzeko aproposa da.
- Pazientzia.
- Bizitzari eta desioei buruzko gogoetak egiteko erabil daiteke, eta garrantziaren erlatibotasunaz jabetzeko ere bai.

B/IRAKURKETA OSTEAN

- Irakurketa paraleloa: *Maitagarrien hiru ipuin* / Gustavo Martín Garzo ; Itzulpena, J.K. Igerabide ; Irudiak, Elena Odriozola.-- Elkar, 2005
 - Alderatu Landaren zein Martín Garzoren ipuinetan maitagarriek duten funtzioa protagonisten desioak gauzatzeko. Zer dira maitagarriak? Zertarako nahi ditugu?
- Irakurketa paraleloa: *Krokodiloa ohe azpian* / Mariasun Landa.-- 3. arg. azal gogorrean-- Alberdania, 2010
- Irakurketa paraleloa: *Txan fantasma* / Mariasun Landa ; (ilustratzailea) Jon Zabaleta.- - Elkar, 2011
 - Mariasunen hiru obra hauetan pertsonaien inguruan badira fantasiarekin soilik ager daitezkeen izakiak. Zertarako erabiltzen ditu?
 - Saiatu ipuin bat idazten teknika honekin. Esaterako egin gidoia hiru parametro hauek aintzat hartuta:
 - Kale garbitzailea; hegazkin pilotua; unibertsitateko ikaslea; idazkaria...
 - Bakarrik bizi da etxe-orratz batean; apopilo bizi da beste hiru lagun eta etxejabearen familiarekin, kostaldeko herri batean; bikotearekin bizi da errentan...
 - Denak harrituko dituen zerbait egin nahi du; ez da maitatua sentitzen; maite dituenei bizi hobeago bat opa die; mutua da; zorte txarra duela uste du...